

Orainarte Hondakinen kudeaketaren inguruan eginiko urratsak hurrengoak dira:

## 2012

### **MAIATZA:**

**Hitzaldi informatiboak:** 4 hitzaldi informatibo antolatu ziren. Josep Castellort Panadés, biologoa, hondakinen kudeaketan 15 urteko eskarmentua zuenak eman zituen. Bertan, Europak markatzen dituen hondakinen hierarkia, sistema ezberdinak, etab...azaldu ziren.

**Bisitak:** 5.edukiontzia Aretxabaletan edukirik, Antzuolara , atez atekoa ikustera egin ziren bisitak, sistema ezberdinak ezagutzeko helburuaz. Guzti hau teknologi berriak erabilia egitea izan nahi zen, bidez jaso ziren eta udal webgunean eskuragarri daude.

### **EKAINA:**

**Mozioa:** Hitzaldietan ikusi eta ikasitakoaz, 4 baldintzak jasotzen zituen Mozioa onartu zen ekainaren 11ko Osoko Bilkuran. Hau da, Aretxabaletako Hondakinen Bilketa sistema, **DERRIGORREZKOA, SELEKTIBOA, PERTSONALIZATUA** eta **%80ko GAIKAKO BILKETA-TASA** zuena izan behar zela.

### **AZAROA**

**Ideien Zaparrada:** Hiri hondakinen kudeaketa sistema posibleak aurkezteko aukera eman zitzaien herritarrei. Asmoa zen, norbanako, talde, elkarte zein enpresen ezagutza eta kreatibitatea piztu eta "hondakinen gaikako bilketan egun dauden aukerek dauzkaten gabeziak gaindituta sistema berritzaile, eraginkor eta posibleen ideiak azalratzea. Mozioan jasotako 4 baldintzak bete behar zituzten proposamenek.

6 proposamen aurkeztu ziren eta mankomunitateko ingurumen teknikariek balorazioa egin ondoren, proposamen batek ere ez zituela Udaltzako onartutako 4 baldintzak betetzen jakinarazi zen.

**2013**

## **OTSAILA**

Erakusketa 6 Proposamenak eta balorazioak, webgunean ipini eta Arkupen erakusketa aretoan egon ziren ikusgai.

## **MARTXOA**

Gaikako zakarrontziak: Gaikako zakarrontziak jarri genituen eta etxeetara horien erabileraren inguruko kontzientziaziorako informazioa bidali zen, etxean hondakinak jasotzeko filosofia bera, kalean ere ezartzeko.

Horretarako, berrerabiltzearen kontzeptua geure eginez, geneuzkan zakarrontziak, gaikako zakarrontzi bihurtu genituen, Lanbide Eskolarekin sinatutako hitzarmen bat medio.

## **APIRILA**

Hondakinen Mahaia: Herritarrak 6 talde ezberdinetan banatu (Merkatariak, ostalariak, elkarte gastronomikoak / Hezkuntza eta jubilatuek/ Zero zabor eta 5. edukiontziaaren aldekoak/ Industria/ Landagunea /Herritarrak orokorrean) eta Mankomunitateko informatzaileen laguntzaz hondakinei buruzko hitzaldi informatiboak eman ziren.

## **MAIATZA**

2 hitzaldi egin ziren: “Hiri Hondakinak eta hauen kudeaketa egokia” eta “Errausketa eta osasuna”.

## ADOSTASUNAREN BILA AKORDIORAKO PROPOSAMENA

Aretxabaletarako hondakinen bilketa-sistematik eraginkorrena zein izan zitekeen aukeratzeko ibilbide luze honetan zehar, gaiak Gipuzkoan hartuz joan zen dimentsio politiko-mediatikoa tarteko, Bildutik akordioak lortze alderako borondatea azaltzen da. Hala, ekainean elkarrizketak hasi genituen, Aralarrekin lehenengo eta irailean gero, EAJrekin. Alderdi politikoez gain, “5. edukiontziaaren aldeko” taldekoekin eta Zero Zabor taldekoekin ere bildu ginen.

Bilera horietan, Bildutik, akordiorako proposamen gisa, atez atekoa bilketa-sistemaren eta edukiontzi bidezko bilketa-sistemaren tartekoa den proposamen bat luzatu zitzaien, "Sistema mixtoa" bezala deitu izan dena.

Udalbatzan onartutako 4 baldintzak bere horretan erabat betetzen ez zituen arren, eta bereizitako bilketa-tasarik handiena ematen zuen sistema frogatua atez atekoa zela jakin arren, gure ustez, proposamen honek alde ezberdinen nahiak kontuan hartzen zituen: batetik errefusa eta ontzi arinak modu pertsonalizatuan jasoko lirateke; organikoa, aukeran emango litzaioke herritarrari: nahi lukeenak edukiontzian eta nahi lukeenak modu pertsonalizatuan; azkenik, papera jasotzeko modua herritarrek aukeratu beharrekoa izango litzateke, prozesu parte-hartzaile baten bitartez. Gainontzeko frakzioak orain arte moduan jasoko lirateke. Sistema honek 6 hilabetetan zehar hileroko jarraipena izango luke, eta tarte horretan jazo litezkeen erabilpen okerrak bideratzeko neurri zuzentzaileak hartzea aurreikusten zen. Epe horren amaieran, eta neurri zuzentzaileak kale egingo balute, sistemaren erabilera okerrak jarraituko balu, edukiontziak kendu eta atez ate bilduko litzateke frakzio hori.

Zoritxarrez, ez Aralarrek eta ez EAJk ez zuten gure akordiorako proposamena onartu, ezta 5.edukiontziaren aldeko taldekoek ere.

Beraz gure herrixen, aurten, hiri hondakin sistema berri bat martxan jarriko dogu guztion artien.

Atez ate izenarekin ezagutzen dan hiri hondakin-sistema hain zuzen.

**Izena gutxienekoa da;** sistema berriarekin lortuko ditugun emaitzak dira azpimarratu eta goraipatu behar direnak: atez ateko bilketa-sistemarekin, Atxabaltan be, %80tik gorako gaikako bilketa lortuko dogu.

- Birziklagarria dan materiala, zergatik eramaten dogu zabortegietara? edo erraustegietara? zergatik alferrik galdu? nork egiten du negozioa gure zaborrarekin? nork egiten du negozioa, munduaren eta gure osasunaren kolkora?

Europako direktiba batek dioen bezala, 2016an berziklatu daitekeen edozein gauza, ezingo da erre, debekatuta egongo da berziklagarri dena erretzea.

\*\*\*\*\*

Atez ateko hiri hondakin-sistema ez da fisika kuantikoa, are gutxiago deabruaren formula kimiko bat, eta Oxforreko masterrik ez da bihar gauzak ondo egiteko; hori bai arduraz jokatzeari eskatzen du.

Atez ate hiri hondakin-sistema, gaur egun, gaika gehien jasotzen duen hiri hondakin-sistema da; besterik ez.

Eta atxabaltarrok ondo egitera goaz.

Sarrerak ez ditugulako erosi **gu ez gara sartuko zirko mediatikoan**, ez da gure gustokoa.

Krispazioaren gainetik airean akrobazia (txatxilipurdi) bat egin eta zutik pista (giro) sano baten murgiltzeko prest gaude.

Atxabaltarren zalantzak eta kezak, malabarismo barik, truku barik, aurrez aurre zintzotasunez eta lasaitasunez argitzeko gaituzue.

**Ohiturak aldatzea kostatzen da**, batez ere, oso komodo bizi izan garenean; eta zaborrarekin benetan komodo bizi izan garela: hondakinak nahastu, bota, transportatu eta gorde; etxeetan nahastu, bota edukiontzietara, garraiatu eta hor konpon marianton, *si te he visto no me acuerdo*.

Ingurumen osasungarri baten bizitzea guztion eskubide bat da. Kutsatzea, berriz, ezin da izan eskubide bat eta, beraz, hondakin denak nahasirik botatzea ezin da eskubide bat izan.

Eskubideak ez dira zalantzan jarri behar, eskubideak bermatu egin behar ditugu ahalik eta eraginkorrenak diren erabakiak, neurriak eta urratsak emanez. Eta, berriz diot, **atez ate hiri hondakin-sistema gaika gehien bereizten duen sistema eraginkorrena da**.

Arnasten dugun airea, edaten dugun ura eta jaten ditugun elikagaiak zaindu eta babestu behar ditugu, gaur eta bihar, hemen eta han.

Konponbidea ez da Jupiterretik etorriko, ezta mirari baten eskutik ere, ez eta gutxi batzuen borondate on hutsetik.

**Ardura denona da eta konponbideak gure esku daude.**

\*\*\*\*\*

**Garrantzirik gabeko kontuetan galtzen gara askotan eta oinarrizkoena ahazten dugu: baliabide mugatutako mundu batean bizi gara.**

Gaur egungo ingurugiroaren egoeran kokatu behar da hondakinen arazoa, iruzurrik egin gabe.

**Datozen belaunaldiei** hondakinez betetako planeta bat utzi nahi ez badiegu, **neurri eraginkorrek hartu behar ditugu.**

Atez ateko hondakinen bilketa selektiboa ez da sistema berria.

Munduko hainbat txokotan egiten da, hiri handi zein herri txikiagoetan.

Eta ez da mundua amaitzen. Oñati ez da suntsitu!!

Aldiz, hobeto eta gehiago gaika jaso eta birziklatzen da, emaitza azkarrak lortuz.

**Datozen belaunaldientzat** arduragabekeria galanta izango da ez **birziklatzea. Gure seme –alabek** koloreak aterako dizkigute atzera begira atez ate izeneko hiri hondakinen inguruan sortu den ika-mikaz ohartarazten direnean.

Osasunari eta ingurumenari zor diogulako goaz Atxabaltan ere gauzak ondo egitera.

Gure seme-alabentzako etorkizun berde eta garbiagoa lortuko dugulakoan, merezi du ikastea.

## **EGUTEGIA**

**Otsailean** zehar Mankomunitateko informatzaileak, udaletxeko hirigintza teknikariek batera, behar diren zintzilikarioen inbentarioa egin eta euren behin behineko kokapena adostuko dute.

Jarraian, **martxoan** zehar, herriko auzo ezberdinekin bilerak egingo dira, honen inguruko informazioa banatu eta alegazioak jaso ahal izateko. Bilera horiek auzokide guztientzako irekiak izango diren arren, atarte bakoitzeko lehendakariaren presentzia ziurtatuko da (bera izango da bere bizilagunei informazioa pasatuko diena).

Behin behineko kokapenaren inguruko erakusketa jarriko da **martxoan** zehar Arkupen eta kokapena aldatzeko alegazioak egiteko bideak zabalduko dira.

Behin alegazioak aztertuta, behin betiko kokapena zehaztuko da. **Apirilean** zehar, atzera be, informazioa banatuko da auzokideen artean.

Gauzak ondo joanda **maiatzean** zehar sistema ezartzen hasiko da eta, espero dugu, **ekainerako** martxan ipintzea.

Lokal bat jarriko da martxan Durana kalean. **Informazio gunea** izango da, bertan informatzaileek, herritarrek eduki ditzazketen zalantzak, galderak etab..argituko dituzte.

Seguru gaude atxabalatarrok markak hautsiko ditugula, arduratsuak garelako eta ingurumenaren eta osasunaren aldeko apustu tinkoa egingo dugulako.

Herria maite dugulako, ondo egitera goaz!!